

URTEKO HAMASEIGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Zein diren Jainkoaren herriaren artzain onak*)

Jeremi profetaren liburutik

23, 1-6

- 1 **Hau dio Jaunak:**
Dohakabeak nere larreko ardiak galtzera
eta barreiatzera uzten dituzten artzainak!
- 2 **Beraz, hunela mintzo zaiote Jauna, Izraelen Jainkoa,**
nere herria gidatzen duten artzaineri:
Zuek barreiatu eta galarazi dituzue nere ardiak,
eta ez duzue heietaz artarik izan.
Nik bai, zuetaz arta izanen dut, zuen gaixtakeriengatik, dio Jaunak.
- 3 **Gero, nihaurek bilduko ditut nere artaldearen ondarrak,**
barreiatu nituen lurralde guzietarik.
Beren larreetarat ekarriko ditut berriz, haziko dira eta ugarituko.
- 4 **Ongi zainduko dituzten artzainak sortuko diozkatet;**
ez dira nehoiz beldurtuko, ez izituko,
eta ez da bat ere galduko, dio Jaunak.
- 5 **Horra egunak, dio Jaunak, Dabidi muskil zuzen bat sortuko baitiot.**
Egiazko errege izanen da, zentzuz ariko da,
zuzentasuna eta justizia ezarriko ditu lurrean.
- 6 **Haren egunetan Juda salbatuko da, eta Izrael segurtasunean biziko.**
Eta izen hau emanen diote : “ Jauna gure justizia.”

Erregeaz mintzatzeko, artzainaren irudia erabiltzen ohi zen Iguzkialde Hurbilean. Errege-makila artzain-makila makoduna zen. Eta Izraelen are gehiago : David ez ote zen artzain xoil bat errege tronuan jarri aitzin ? Errege onari artzain ona erraiten zitzaion, bere artaldea, erran nahi baita bere herria, ontsa zerabilena.

Zorigaitzez Izraelgo erregeen historia ez da artzain on zerrenda batena. On baino gehiago tzar izan zen. Beren herriaren zurgatzaile, anitzak. Profetek berenak erraiten ziozkatzen. Hala nola Jeremik, egungo irakurgaian. J.K. aitzineko 6.mende hasteko gertakarietaz ari da. Jerusalem babiloniarrek hartua eta xehatua izanen da, herria desterratua Babiloniarat, eta Judako erregeak behin betikotz xahutuak. Jainkoak herria segurtatzen du bera izanen dela geroan Izraelgo errege. Ezen nor da, azkenean, Izrael herriaren erregea, Jainkoa bera ez bada, 22.salmoak dion bezala : *“Jauna dut artzain, ez naiz egonen beharrean...”* Izraelen esperantza zen, noizbait, azkenean, bere artetik errege on bat aterako zela. Luzaz amestu errege hura Mesias izan behar zen. Hari hortarik doa gaurko irakurgaia : *“Gero, nihaurek bilduko ditut neure artaldearen ondarrak...beren larreetarat ekarriko ditut berriz, haziko dira eta ugarituko.”*

Gero ideia bera beste irudi baten bidez emaiten dauku Jeremik : *“Davidi muskil (edo ozi) zuzen bat sortuko (diot). Egiazko errege izanen da, zentzuz ariko da, zuzentasuna eta justizia ezarriko ditu lurrean. “Emeki-emeki, “ozi” edo “Daviden ozi” Mesiasen izen-orde bilakatuko da. Profeten bidez, ideia hori herriaren gogoan eta sinestean sartuko da : “Harek baizik ez zezaken ekar “zuzentasuna eta justizia.”*

Trufatzekorik ez da, bainan Judako azken errege zorigaitzekoak 587an Babilonerat burdinetan joan behar zuenak, Zedeziar zuen izena, erran-nahi baita *“Jauna ene justizia”*. Bainan *“izena izana”*, erran zaharra, gezurtatu zuen, Jainkoaren alderat leialtasungabea izan baitzen. Ironiaz, Jeremik Mesiasi izen hori bera emaiten dio : *“Jauna gure justizia”*, jakinik harek egiaztatuko duela.

Leloa : Jauna dut artzain, ez naiz egonen beharrean.

**Jauna dut artzain, ez naiz egonen beharrean,
Zer gainetarat nerabilan!
Ur bazterreko pausa lekurat banerama,
Pitz dakitan, hor pitz arima.
Haren ondotik bide zuzenez ni banoa:
Haren izena zein gozoa!**

**Ilunbez ala gaitz-erreketan joanik ere,
Nik ez beldurrik, hor baitzare.
Zure begia, zure makila hor direno,
Badut nik bake, badut gozo.**

**Zuhauk dautazu ezartzen neri mahain xuri,
Etsai guzien harrigarri.
Ixurtzen duzu nere bururat usain ezti,
Basoan badut gaindiz gaindi.**

**Nik zoriona eta grazia ditut lagun,
Nere bizian gau-ta egun.
Banago eta Jaun zerukoa den etxean,
Epe luzerik luzenean.**

Egun irakurri salmoa, laburrenetarik da. Biziki mamitsua delakotz, lehen girixtinoek Bazko aratseko hautatu zuten. Gau hartan, hain xuxen, bataiatu berriek, uretik ateratzean, salmo hau kantatzen zuten beren lehen komunioneari eta fedearen aitormenari buruz joaiten zirela. Horra zergatik salmo hunek ukan duen izena « girixtino lehen irakaspenaren salmoa ».

Izraelentzat, biziaren misterioa Elkargoan, Jainkoaren baitan den bizia, salmo hunek ontsa erraiten zuen, eta ondorioz bataiatuen bizi miresgarria girixtinoek hor ikusi dute. Fededunaren zoriona erakusteko, salmo hunek bi esperientzia kondatzen ditu: lebitarena eta beilariarena. Izraelgo populua lebita zoriontsu bat bezala da Jaunaren tenploan baitu bere bizitokia. « *Nik grazia eta zoriona ditut lagun, nere bizian gau ta egun. Banago-eta Jaun zerukoa den etxean, epe luzerik luzenean.* » Nor dira lebitak? Hasera liburuaren arabera, Lebi Jakobena hamabi semeetarik da, hek baitute hamabi leinueri beren izena eman. Bainan Lebiren leinuak toki berezi bat badu: Lur Hitzemanaren partiketak egin zirelarik hamabi leinuen artean, leinu hunek ez zuen bertzek bezalako parte ukan, tenploaren zerbitzurako baitzen. Jainkoa bera dela haren ondare erraiten da; itxura ezaguna bertze salmo batek dion bezala: « Zu zira Jauna nere bihotzaren sari, nere ondare; zutan Jauna ene zoriona, zu ene ondarea. » Bertze leinuen artean, lebitak herrietan barreiatuak bizi dira, jendeek eman hamarrenak onartuz. Jerusalemen, tenploaren zerbitzari dira.

Esker onezko sakrifizio baten eskaintzeko, tenplorat etorria den beilariaren itxura ere du Izraelek. Beilaz doala tenploari buruz, ardi bateri konparatzen da : bere artzaina, Jainkoa. Ekialde Hurbilean, gorteko mintzairan, erregeak populuaren artzain deituak ziren. Ezekiel profetak bere gain hartu du itxura hau: Zaul eta Dabiden ondotik, sekulako artzainak ukan ditu populuak, bainan zoin guti Jainkoaren begietan. Harek bakarrik du merezi Artzain onaren izena, bere artaldearen beharri erne dagona. « *Jauna dut artzain, ez naiz egonen beharrean; ur bazterreko pausa lekurat banerama, pitz dakitan hor, pitz arima.* »

Beila galbide izan daiteke. Bidean beilariak etsaiak aurki dezazke: « *Zuhauk dautazu ezartzen neri mahain xuri* »; heriotzea hurbil ukan dezake: « *Ilunbez ala gaitz-erreketan joanik ere,*

nik ez beldurrik, hor baitzare ». Bainan zer nahi izana gatik ere, ez da beldur, Jainkoa berekin dago: « *Zure begia, zure makila hor direno, badut nik bake, badut gozo* ».

Tenplorat heldu ondoren, esker onezko sakrifizioa egiten du beilariak, usaiako bazkarian parte hartu aintzin. Bazkari hori laguneren arteko besta bilakatzen da, « *basoan badut gaindiz gaindi* », usain ezti eta gozo.

Lehen girixtinoek salmo huntan aurkitu zuten beren fedearen esperientziaren erakustekoa : Jesus bera da egiazko artzaina. Bataioaz ditu heriotzearen leizetik ateratzen, bizia berriz emaiten ur bazterrerat eremanez : mahain xuri, baso bete betea, usain ona (fedearen aitormena). Aldi huntan ere, girixtinoek, xoratuak, ikusten dute Jesusek ez duela deus kentzen bere populuaeren esperientziari, bainan ba betetzen, osoki betetzen, bururaino eremaiten.

Bigarren irakurgaia

(Jesus da gizaki guzientzat Bakea)

Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri 2,13-18

Haurrideak,

- 13 lehen Jainkoarenganik urrun zineztenak,
orai hurbildu zirezte Kristoren odolari esker.**
- 14 Alabainan, Kristo da gure bakea:
bat egin ditu bi herriak, Izrael eta paganoak,
bere gorputza emanik,
berexten zituen hesia, etsaigoa desegin baitu,**
- 15 Moisen legea bere manamendu eta arauekin baliogabetuz.
Batak eta besteak horrela bildu nahi zituen, bakea eginez,
eta bere baitan gizaki berri bakarra sortu.**
- 16 Batak eta besteak, gorputz batean bildurik,
Jainkoarekin adiskidetu nahi zituen gurutzearen bidez:
bere baitan, etsaigoa hil du.**
- 17 Bakearen berri ona ekartzera etorri da,
bakea zueri, urrun zinezteneri, bakea hurbil zireneri.**
- 18 Alabainan, batzu eta besteak hurbil gaitzezke
Aitarenganat, Izpiritu beraren baitan.**

« *Batzu eta besteak hurbil gaitzezke Aitarenganat, Izpiritu beraren baitan.* » Paulo bi girixtino taldez mintzo da. Batzu judu girixtinotak dira, eta besteak pagano girixtinotak. Paulo Efesorat jin zelarik Apollosek dotzena bat judu Jesusen ganako federat bilduak zituen. Paulo Efesoko sinagogan Ebanjelioaren mezutzen ari izan zen, bainan kontra-erraille gogorak aurkitu zituen. Orduan girixtinoak sinagogatik berexi ziren, bainan beren artean bazituzten pagano ondoak bai eta judaismotik ateratuak. Paulok idatz zezaken : « *Kristo da gure bakea : bat egin ditu bi herriak, Izrael eta paganoak...* » Paulo pagano girixtinotueri buruz ari da : « *Lehen Jainkoarenganik urrun zineztenak, orai hurbildu zirezte Kristoren odolari esker.* » Bi girixtino taldeak elgarrekin baketzeaz idazten diote. Anaitasunean bizitzeko Pauloren kontseiluen beharra bazuketen : batzu ala besteak ez ote dira bataiatuak, Jesus piztuaren bizi berriaz bizi ? Hori da konda den gauza bakarra. Ebakituek (Juduek) ebakitugabeak (paganoak) mespretxatzen zituzten, eta alderantziz. Jainkoaren asmoa ez ote da gizaki guziek, berexkuntzarik gabe, elgarren arteko bakea egin dezaten : « *(Jesus) bakearen berri ona ekartzera etorri da, bakea zueri, urrun zinezteneri, bakea hurbil zireneri.* » Eta bake hori nundik dator ? Fede beretik. Orai Kristorenak diren guziek beren fedea Kristori eman behar diote. « *Nik, lurretik altxatuko nautenean (kurutzerat), denak nereganat erakarriko ditut.* » (Jn 12,32)

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Jesus, Artzain onak bere ardiak ezagutzen ditu,
eta ardiek ezagutzen dute, heientzat bere bizia eman baitu**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 6,30-34

- Beren lehen misionearen ondotik,**
- 30** **Apostoluak Jesusenganat bildu zirenean,
egin eta irakatsi guziaren berri eman zioten.**
- 31** **Jesusek erran zioten:**
**“ Zatozte zuek, berex, leku bazter baterat,
eta har atsedean pixka bat.”**
- Ainitz baitziren joan-jinka zabiltzanak, jateko astirik ere ez zuten.**
- 32** **Joan ziren beraz untziz leku bazter baterat, berex.**
- 33** **Joaiten ikusi zituzten, eta ainitzek ezagutu;
orduan, oinez, hiri guzietarik, lasterka joan eta aitzindu zituzten.**
- 34** **Untzitik jaustean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen.
Urrikaldu zitzaieten, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren.
Orduan, luzaz irakasten hasi zitzaieten.**

Lehen aldikotz, Jesusek bere apostoluak misionez igorri ditu. Eta horra (egungo Ebanjelioa) gibelerat heldu direla. Zer predikatu dute eta nun? Jesus bera ibili zen eskualdean, Galilean, eta ez zezaketen Jesusenganik entzuna baizik irakats. Markek, hain xuxen, laburbiltzen du Jesusen erakaspena : « *Joanes preso sartua izan zelarik, Jesus Galilearat etorri zen eta Jainkoaren berriona oihukatzen zuen, erranez : « Betea da denbora eta hurbildua Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitezte eta sinets berriona. »* Mk 1,14-15

Bitxi iduritzen bazaiku ere, beren misionea bururatu ondoan, Jesusek pausua proposatzen diote : « *Zatozte, berex, leku bazter baterat.* » Jesusek berak ere hala egiten zuen : Kafarnaumen egun bat osoa predikatzen eta eri sendatzen ari izan ondoan, bakartasunerat baztertzen ikusten dugu : « *Goizean, oraino ilun beltza zelarik, Jesus jeiki zen, herritik atera eta bazterleku batetarat joan ; han otoitzean ari zen.* » Mk 1,35. Jesus bera ere indarberritzera joaiten zen. Nolaz ez, orduan, jenden artean misioneari emanak direnak, mendez mende. Alta jendea Berrionaren beha dago. Bai, bainan mezularia noiz-behinka indarberritzera joaiten bada, ez ote da gero herria hobeki zerbitzatzegatik ?

Bainan Jesusi jendea jarraitzen zaio « *leku bazter* » hartaraino. Untzitik jaustean Jesusek jendetze handia ikusi zuen, haren beha zagona, eta « *urrikaldu zitzaieten, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren. Orduan luzaz irakasten hasi zitzaieten.* » Lehenik irakasten hasten zaio ; gero ogiak ugarituko ditu (6,35-44) : herriaren hazteko bi molde. Ez ote zaizkigu ikustera emaiten hemen, eukariztiaren bi zati nagusiak : Jainkoaren hitzaren entzutea eta ausnartzea ; eta gero Jesus bilakatu den ogiaren jatea?